

Miren Abarrategi

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1921-2007)*

Aurkibidea

Biografia



1921ean jaio zen Arrasateko Akiso baserrian. Ama antzuolarra zen, aita Arrasatekoa. Donostian egon zen garai batean, baina gerora Arrasatera itzuli zen. Harrezkero baserrian bizi izan da.

Zintak

ARR-012

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-03-09
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ARR-013

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-03-09
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV

ARR-138

- **Proiektua:** AED elkartea
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:**
- **Iraupena:** 17 min
- **Euskarria:** Audio Analog

Pasarteak

1. Akiso baserrian jaiotakoa

- **Erref:** ARR-012/001
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Jatorria. 1921ean jaiotakoa, Akiso baserrian. Baserriaren inguruko aipamenak. Ama antzuolarra zen, Agirre lehendakariaren lehengusina.

2. Gurasoak Antzuolatik Arrasatera joandakoak

- **Erref:** ARR-012/002
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Amaren gurasoak, Antzuolatik Arrasatera joan ziren bizitzera eta ama bertan hazitakoa zen. Akisora ezkondu eta bertan baserriko kontuetaz arduratzen

hasi zen. Aitaren jatorria. Miren Donostian egon zen garai batean, baina baserrira itzuli zen. Baserriko lanak, gogorrak. Familia kontuak.

3. Eskolan hiru auzotako neska-mutilak elkarrekin

- **Erref:** ARR-012/003
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Eskolaren inguruko kontuak. Euskaraz hitz egitea debekatuta zuten; erdaraz ikasi beharra. Maisua Aretxabaletako baserri batekoa zen. Arrasateko udaletik inspekzioa. Hiru auzotako umeak ibiltzen ziren elkarrekin: Uribarri eta Santa Agedakoak ere beraiekin. Urteetara neskendako eskola egin zuten.</p>

4. Erdara ikastearen garrantzia

- **Erref:** ARR-012/004
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Erdaraz ikastea garrantzitsua zen gurasoentzat; baina euskara asko maite zuten. Aita Arabara joan zen gaztetan erdara ikastera.</p>

Transkripzioa

-Orduan inportantie izaten zan ez, erderie ikastia eta?

-Bai oso inportantie.

-Gurasuendako be inportantie izango zan ez? umiek...

-Gurasuk baserritarrak eta torpe samarrak zien. Baiñe nik esan dotena, ama kalien hasitte euen ta erderaz ondo ekixen. Baie ume askok ez ekixien amak eta ez zotsien eitten erderaik eta. Eta asko gehixa kostetan jakuen harei erderaz ikestie. Eta hor baserri goixen bizi zienak eta be bai "mas torpes" ikesteko erderaz. Sekule entzun ez bozu. Zuk alemana ta moduen, zuk sekule entzun ez bozu ez dozu ikesiko, baiñe entzun bozu ta bai.

-Orduan gurasuak eta nahi izaten zebe erderaz ikastia umiak eta?

-Bai, baiñe euskara maitte izeten zan e! Euskeri be e! Euskerie be asko gustetan jakun. Erderie be bai, ikestie bai. Hareik baekixien erderiek be hemendik kanpora falta eitten euela ta.

-Erderia eskolan ikastia eta etxian euskeraz, ez?

-Euskeraz bai, etxian euskeraz.

-Esaten dozunian euskeria asko maitxe zala ta, zegaitxik edo, zuk ikusten zenuan? Igartzen zenuan etxian?

-Etxian beti euskeraz. Etorten bazan kanpotik bat edo bat, parienten bat edo baten- bat edo ez ekixena euskeraz ba harekin erderaz ta eitten gauen. Hor Donostin ta bageunken familixie ta. Baiña bestelan etxian euskeraz betik.

-Hemen inguruen eta jentia edo gaztiak eta joaten zian Arabara erderia ikastera?
-Gure aittek esaten euen bera juenda euela. Bai, bestela asko ez e! Ez zan joaten. Baiña aittek esaten euen: "gu Arabara bialdu ginttuen". Zera, erderaz ikesten. Han zela ez zan eitten euskeraz. Ta oin Araban eitten da euskeraz e!

5. Eskolan hiru auzotako neska-mutilak elkarrekin

- **Erref:** ARR-012/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan ume guztiak elkarrekin; baina neskak eta mutilak banatuta jartzen ziren.</p>

6. Umetako jolasak

- **Erref:** ARR-012/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: diez-beinteka.

Transkripzioa

- Ta esan dozu lehen eliza-ostian edo, ez dakit, hor inguruan jolasten zenduela...
- A! Bai.
- Zetara jolasten zenduen holan umetan?
- Bueno! Veinte-veinteka. Lau itsutu hola, ta hogeï kontau. Ta, gero, kentzen gutsenien, guk harei bateri ebatu ein bihar gutsen. Ta, gero, nun ebatu? Ez genkixen nora jua zan ta! Ta hak ebaketan utsenak, ba, hak irabazi eitten euen. Igual sartzen zien han eskiña batetik norabaittera ta... "Fulano de tal". "Pues, no habéis conseguido agarrarle a ese". Ta han urteten euen. Baiña gu galdute. Ez geuen irabazten. Ikusten ez zoskun itxitten ta... Ta, gaiñera, ignorantiek be bai. Hola tapauta ifini geuk, ta geuk apurtxo bat zabaldu be ez ikusteko. "Muy ignorantes".

7. Gaztetan sarritan erdaraz hitz egiteko joera

- **Erref:** ARR-012/007
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>6-14 urte bitartean eskolan ibiltzen ziren. Hasieran euren artean euskaraz egiten zuten, baina erdara ikasi ahala, horrela hitz egiten hasi ziren.</p>

Transkripzioa

- Sei urtekin sartzen gintzen eskolan "hasta catorce".
- Eta zeuen artian erderaz eitxen zenduen ala?
- Lelengokuen ez. Baiñe gero ikesten ta juen gintzenien ba bai. Samurre da erderie. Erderie samurre da.
- Nesken artien gehixau ala mutillen artien?
- Neskak die mas.
- Bai? Erderara errezau?
- Bai.

8. Eskolako lagunak

- **Erref:** ARR-012/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Neskak eta mutilak batera jolasten zuten. Eskolako lagunak, bereziak.

9. Kromoak, nesken jolasak

- **Erref:** ARR-012/009
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:14:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Neskak kromoetara jolasten zuten.

Transkripzioa

- Ta beste jolasen bat eitten zenduen?
- Bai, [horik], zerak, "cromos". "A cromos". Kromuek ifini ta hari bueltia emon ta zenbat azertatzen zittun, ba, harendako. Ta, gero, ba, igual isten ziñuen bape barik. Apur bat ondo eitten euenak... Ba, zu bape barik. Bai, kromoka be asko. Kromoka neskak gehixao, e!
- Ta kromuak nun jiratzen zenduezen, ba?
- Kromuek erosi. Kalera juaten zaniien ama: "Ekarri kromuek". Ta ekarten oskuen ta... Gero hola ein ta... Batzuk tranpa gehitxuao eukitten euen, holan hartu ta "da!" hola ta... "E! Horrek ez dau balixo!".
- Senarra: [...].
- Bai, pegaute ta... Jolin! Bai. Izeten zan jokue baiñe entretenidue, e! Oso

entreteneidue.

- Ta zelakuak izaten zian kromuak? Ze dibujo edo...?

- Bai, eukitten zittuen politte dibujuek. Batzuk kaballuek, beste batzuk...

- Senarra: Katuak, txakurrak...

- Katuek, txakurrek...

- Senarra: Pertsonak be bai, ta mutikuek ta neskatillak eta...

- Bai, umiek eta "de todo". Kromuek oso politte. Eta emuten euen haik galtzen zienien pena bat...! Bakotxak balixo euen igual bost zentimo edo, ta orduen asko zan. Ta guk: "Ala! Urten dau, urten dau!", ta urteten dauenien, ba, irabazi eitten da. Ta buelta emoten ez botsezun, ba, ezebez, bestiendako. Oso joku zera zan, dibertidue zan, e! Gero, umiek pazientzie tremendue!

- Esan dozu kromuak-eta jirau eitten ziala dendan edo...

- Klaro! Dendan saltzen zittuen.

- Zeuek ez zenduezen eitten, ezta?

- Geuk jueten bagitzen ta dirue eukitten bageuen, geuk erosi be bai. Baiñe dirue euen "al otro lado del océano". Amai-edo esan biher ekarteko.

Eukitzen gittuen, gero kajatxo batzuk eta eukitzen gittuen ta gero han gordetan gittuen.

10. Garizuman, tortoloseara jolasten zuten

- **Erref:** ARR-012/010

- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:14:52. **Bukatu:** 00:17:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Tortolosak. Aharienak oso preziatuak izaten ziren. Garizuma sasoiaren egiten zen tortolosean.

Transkripzioa

- Tortolosean-eta eitten zenden?

- Baitte! Tortolosean be bai. Tortolosak izeten zien...

- Ta zelan izaten zan joku...?

- Tortolosak izeten zien... billotsenak ez zien apreziauek, zerenak zien apreziauek, adarixenak eta hola, haunditxuauek. Eta haik ifini, ta guk gero hartu zera, kanikie, ta bota gora ta hari buelta emon. Ta, gero, ha goixen zan bittartien hartu ta holaxe, jokue. Politte, oso politte jokue.

- Eta kanturen bat zeuan edo...?

- Kantuek, ez geuen eitten kantu asko.

- Ez?

- Ez.

- Holan, kanikia gora bota ta buelta emoteko ta...

- Ez, ez, kanturik ez euen. Orduen haxe. Orduen haxe, buelta emoten bajakon, "al bolso", ta galtzen bazeuen, "Aiii... Akabo! Galdu dot! Galdu dot!". Gero etxera etorten bagitzen galdute, ba, amai... Amak... Jeneralien hamengo amak-eta, juaten zien behi-esniekin kalera. Ta "de paso", ba, "Ekarri kromuek, e, ama. Kromuek ekarri." Ta ekarri ein biher, bestela gerra.

- Tortolosak-eta, esan dozu, adarixanak ziala...

- Bai, apreziauek.
- Margotu edo eitten zenduezen?
- Ez. Zien haundixauek, eta zerenak, billotsenak, txikitxuauek. Ta haundixek balixo euen asko. [Haikin] jokatu be hobeto eitten zan ta... [Bestiek hiru eitten euen batzutan] ta...
- Eta tortolosian alde bakoitzak izenen bat zekan?
- Ez, ez zeuken. Tortolosai tortolosa. Unikamente, kanikan eitten bagauen han... eskola onduen egozen, ba, zer batzuk, harri batzuk. Ta kanikan be bai. Kanikie bota ta hari zera, ta, bestela, gora be bai. Baiña fazillaue zan gora jokaketie. Bestiek salto eitten auenien hartu biher zauen ta. Batzutan iges eitten otsun. Diferentie zan. Oin ez daue eitten horrek jokuk, holako jokuik. Ta galdetu be ez zela eitten gauen be.
- Hori ze izaten zan, urte guztian jolasten zenduen ala urte sasoiaren baten?
- Sasoiak egoten zien. Horreik jeneralien garizuman.

11. Garizuma garaian, txirikilarekin jolasean

- **Erref:** ARR-012/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Txirikiletan ere Garizuma garaian jolasten zuten. Eskola urteetan jolasten zen txirikilarekin.

Transkripzioa

- Ta garizuma-denporan, zela esaten zan? Horrek zerok, egurtxuekin eitten zana?
- Senarra: Txirikillaka.
- Txirikilla, txirikilla. Txirikillak zien, ba, zerak...
- Senarra: makilla luze bat eta bestia motxa.
- Makilla luzie ta bestie motxa. Luzie jotekue. Txikixa hartu eskuen ta jo. Ta ha urrin botaten bazauen, ba, irabazi eitten zeuen. Ta hurrien geraketan bazan, ta bestiek hurrao, ba, han hurrekuk galdu. Hori eitten zan garizuman. Bueno...! Horrek...
- Eta hori zenbat urtekin edo izaten zan jolas hori?
- Ba, hori sei urtetik hasta... eskolatik urten arte. Gero ahaztu eitten zan hori. Gero haunditxuek izeten zien. Txikixak izeten zien ibiltzen zienak, baiña haundixek ez.
- Eta, esaten dozu, orduan, zala makilla luze bat eta...
- Beste txiki bat. Hau, haundixe, txikixe joteko. Ta, gero, han egoten zan, futbolistak-eta eitten dauena: una... arraia bat. Ta arraia pasetan bazauen, irabazi eitten zeuen; baiña arraiara llegetan ez bazan, galdu. Ta zuk txirikillie —txirikillie, hori zeroi, palo zeroi, txikixoi— hori zera ein biher, entregau ein biher, galdu zauen ta. Oso...
- Bestiari emon...
- Bestiai emun biher. Ta, gero, askotan galtzen bazeuen, ba, geraketan ziñen bape barik. Ta, gero, aittei edo amai esan biher—Amai ez, aittei, jeneralien; edo, bestela, anairen bateri—: "Txirikillak [eiñeidazuz], txirikillak [eiñeidazuz]". Ta hor juaten zien norabaittera, egurra eguen lekure, ta harek eitten oskuen. Anaiek-eta eitten oskuen txirikillak.

12. Umetako jolasak: diaboloa, txirikila

- **Erref:** ARR-012/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Umetako jolasak: diaboloa; txirikila. Garizuma bukatutakoan, ez zen gehiago txirikilarekin jolasten.

Transkripzioa

- ... bi makilla ta bi makillen artian...
- A! Hori! Zera...
- Senarra: diaboloka?
- Diablo, bai, diablo. Zer bat hartu, soka bat, ta hori zeroi, diablui erdixen ifini ta hareaz. Ta, gero, gora bota ta hartu ta hola. Ha be politte zan jokue. Ez dakit ikusitte eukiko dozuen.
- Bai, ikusitta bai. Eta hori, gaiñera, dendan-edo erosiko zenduen, ez?
- Bai, klaro.
- Txirikillia, ostera, zeuek eitten zenduen...
- Txirikillek etxien.
- Esaten neban, txirikillia... Ba, zuk esan dozuna: lurrian marraren bat edo

eitten zan eta egoten zian bi makilla halako kakotx modoko batekin txirikillia bertan ipintzeko edo?

- Ez.
- Halakorik ez?
- Eskuetan hartzen gittuen zerak eta...
- Senarra: Behian harri bi ez zien, ba, egoten txirikillia gaiñien isteko?
- Biharbada hemen harrixak izango zian?
- Harri bi ifintten [zizun] lurrien, eta gero eskutan hartzen [zittuen] haik zer bateaz, kordel bateaz. Ta hareaz kordelaz, ba, "ra-ra-ra" eraitten otsezun, ta seguru [...] botatzen [...] gora.
- Baiña hori diabolua...
- Bai. Ta, gero, hartzen zeuenien-ta, bueno! Hori zan "un triunfo", ha goixen hartzen zanien. Ihes eitten ez baeuen, ba, hartu ta ala! Oso joku... Oin holako jokuik ez da eitten.
- Dibertidua, ez? Gauza gitxikin...
- Baiña oin... Lehen jokuak, ba, polittek. Neri gustetan jaten hori, txirikillan. Hori garizuman, e! Ta garizumie bukaketan zanien ez zan eitten. Ez dakit ze esan gura euen horrek. Garizuma-denporan bakarrik.
- Garizuman, holan, beste jolasik edo eitten zan orduan bakarrik?
- Ez, ez. Txirikillakin, neu akordetan nazela txirikillak. Baiña afan bat... Bueno!
- Eta hori neskak eta mutillak?
- Bai. Danak.

13. Umetako jolasak: Losa-losaka; sokasaltoan

- **Erref:** ARR-012/013
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: losa-losaka; sokasaltoan.

Transkripzioa

- Gero, "txingurriska" edo eitten zenduen? Edo "losa-losaka" edo...?

- Bai, "losa-losaka" bai. Han markak ein, zera, ta hanka-koja. Han pasetan zittuenak eta, ba, ikuketan otsenak arraiai edo galdu. Hori be bai. Hori asko.

- Ta soka-saltuan be eingo zenduen, ez?

- E?

- Soka-saltuan...

- Bai. Salto, "taka!" Salto. Gaur baiño hobeto.

- Kantuak-eta eitten zenduezen soka-saltuan?

- Soka-saltuen be bai. Soka-saltuen asko.

- Kanturen bat goguan dakazu?

- Bai, "Soy la reina de los mares y tu ya no puedes ser", "trrin-ta-ta-ta!" fuertiao gero ta. Gero polittuau. "Más despacio que aquí no se puede, que se pierde" ta hori rekreoko denporan izeten zan. Dana erderaz eitten geuen. Ta "que es demasiado pronto, que no se puede", ta... Han hankia sartzen bazauen, sokie galdu eitten zeuen. Ha itxi biher zeuen, ba, libre, salto eindde: "taka, taka!". Gauza... Ni akordau be ez nitzen eitten. Ointxe zeuk galdetu dozulako, bestela, horrek jokuok eta... aspaldi juenda dauz!

Ta oingo umiek ez daue eitten holakoik. Holako jokuik ez daue eitten.

- Bueno, soka-saltuan pixkat gehixao, ez? Tortolosak-eta ya ez dira ikusten...
- Ez.
- Baiña soka-saltuan...
- Soka-saltuen iguel bai.
- Nik uste dot modak izaten diala, ez?
- Bai, soka-saltuen bai. Mutillek be etorten zien kuadrillara como... eurak gehixao zien moduen. Mutillek zela fuertiauek izeten dien jeneralien... Sartu soka ta [hanka]! Ta "Ala! Irabazi dotsut!". Iñok ainddu barik etorten zien hareik, "taka!".
- Ta beste, holan, korruan ipinitta mutillak eta neskak eta...?
- Bai, "Al corro de las patatas", pañelotxua hartute. Gero pañelue itxi han ta han ha harrapetan dauenak, ba, irabazi eitten auen.
- Baiña hori... Ze dira, bi jolas diferente. Edo?
- Bai, diferenteik. Korruen jarri ta pañelue ifini erdixen. Ta korruen danok bueltan...

14. "Arre arre mandako..." kanta ezaguna

- **Erref:** ARR-012/024
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:36:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Arre arre mandako..." kanta ezaguna abesten du.</p>

Transkripzioa

Arre, arre, mandako
bihar Tolosarako,
etzi Panplonarako.
Handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko.

- Horixe kantetan jakuen asko umiei. Ez nitzen akordetan.
- Eta hori aittari entzunda?
- Bai.

15. Umetako, gaztetako jolasak

- **Erref:** ARR-012/028
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Jolasak: astoka. "Txorro, morro,...".

Transkripzioa

- Baitte. Astue ifini azpixin, ta salto ein ta... Buuf! Holakuek asko. Muturrez aurrera jausi be bai batzutan.
- Ta "Txorro, morro, piku, kaio, ke" edo...?
- Senarra: Baitta.
- Baitte.
- Zelan izaten zan hori?
- "Txorro, morro, piku, kaio, ke"...
- Ze zan, atzapar bakoitzak izenen bat zekan edo...?
- Kontetan, atzaparrak kontauaz: "Txorro, morro, piku, kaio, ke". Ta, gero, zuk aurretik esan [...] "piku", ba, han geratu ein biher zan. Ta irabazten zeuen. Baiña [...] zan irabaztie. Joku asko euen umiendako ta...
- Tranpak edo ez zian eitten? Atzaparra ez dakit zelan ipiñi despistatzeko edo...?
- Edo gorde edo, ez zeuela han atzaparrak eta...

16. Umetako, gaztetako jolasak

- **Erref:** ARR-012/029
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:41:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Zuhaitz batean soka bat ipini eta txin-txaunean egiten zuten.

Transkripzioa

- Umiak, holan, txintxaunian edo ipinitta, edo altzuan, beste jolasen bat?
- Bai, orduen txintxauek euezen ez oingo modukuek. Soka bat ifini holako arbola baten edo. Han soka ifini umie, ta hari ondo obatu biher, sokatik ha samur jausten zan ta. Hartu ta "tra!" ta: "Gehixau! Gehixau!". Hori ein biher zauen leku baten bedarra-edo euen leku baten, zeatik jausten bazien, "pues, adiós muy buenas". Ta "Gehixau!" ta "Gehixau" ta... Hortan asko gustetan jakuen umiei, hori jokuoi. Hartu atzekaldetik eta "da!" bota ta... "Urriñao!", ta "tta!" ta ba!... Jausten bazan gero, egundoko arrantzak, "a llorar". Bai, joku asko euen, e! Baiña oin ez da eitten holako jokuik.

17. Aita bertsozalea

- **Erref:** ARR-012/031
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:42:25. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Aitari bertsoan egitea asko gustatzen zitzaion.

18. "Txalo pin txalo" kanta ezaguna

- **Erref:** ARR-012/033
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:46:15. **Bukatu:** 00:46:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>"Txalo pin txalo" kanta ezaguna.</p>

Transkripzioa

- Eta beste kantu bat, holan, oso ezaguna ta seguru ezautzen dozuna: "Txalo pin txalo"?
- "Txalo pin txalo, katutxue mizpilla gaiñien dago". Ta gehixao ez dakit.
- Kantuak be asko zian, orduan, ezta?
- Asko, asko.
- Lehen jolasak esan dozu, baiña kantuak be...
- Kantuek be asko, asko.

19. Gabonak familia giroan

- **Erref:** ARR-012/038
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 01:00:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gabonak familia giroan. Jaiotza; erregaloak; turroia; etab. Errege Eguna ospatzen zen, baina Olentzerorik ez. Urteberri egunean, elizako kantak abesten zituzten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com